

PRENTSA-OHARRA: Garapenerako lankidetzaren eztabaidagai.
#ElkarlanerakoOrduaDa

Iruñea, 2023ko maiatzaren 10a

Gaur goizean, Nafarroako GGKEen Koordinakundeak Parlamentuan ordezkariak duten alderdi politikoak bildu ditu beren hauteskunde programetako analisia egiteko, Garapenerako Lankidetzaren arloari dagokionez.

Koordinakundea entitate anitza da, Nafarroan diharduten Garapenerako 48 GKEk (GGKE) osatua, eta 25 urteko lan ibilbidea egina du Foru Komunitatean. Urte sail luze horretan, lan handi-handia egin da eragin politikoaren alorrean; zenbaitetan, korapilatsua, dela mozketen ondorioz, dela Programa Akordioak bete ez izanaren ondorioz.

2023-2027 urteetarako legealdi berriaren atarian gaude eta, hori dela-eta, Koordinakundeak Garapenerako Lankidetzan dituen proposamenak helarazi dizkie alderdi guztiei eta, aldi berean, bilerak izan ditu haiekin guztiekin gure eskarien berri emateko.

Gauden testuinguru honetan, aurre egin beharreko erronka aunitz ditugu



Baloratu da hauteskunde-programek biltzen dituzten edo ez lankidetzaren politika bermatzeko funtsezko neurri hauek:

- Aurrekontua handitzeko proposamen zehatza 2026an % 0,7 betetzeko
 - o Aurrekontua igotzeko proposamen zuzena 2026an betetze aldera eta/edo
 - o Aurrekontua mailaka igotzeko proposamena 2024-2025-2026
- Programan bildua ote dagoen Nafarroako Gobernuko atala langile prestatuz eta egonkorrez hornitzeko beharra.
- Garapen jasangarrirako politika koherenteen estrategia bultzatzea.
- Ekintza Humanitarioa behar adina baliabidez eta mekanismoz hornitzea.
- Garapenerako Hezkuntza Estrategia bultzatu eta ezartzea (onetsia eta argitaratua)

Eztabaida saioaren, bileren eta analisisen helburua da alderdiek Garapenerako Lankidetzarekin duten konpromisoa agertzea. Gaurko mahaiak programetako aspektu zehatzagoak ezagutzeko balio izan du, bai eta konpromiso horiez eta konpromisoen hobekuntzaz hitz egiteko ere.

Koordinakundeak eskerrak eman nahi dizkie zazpi alderdi politikoei saioan parte hartzeagatik. Gure iritziz, horrek erakusten du Nazioarteko Lankidetzak funtsezko eginkizuna betetzen duela, bete duela eta betetzen jarraitu behar duela Nafarroako politikan. Izan ere, gaurko gure helburua da nafar herritarrek horixe gogoratzea bozkatzera joan baino lehen. Hortik heldu da gure etiketa: **#ElkarlanerakoOrduaDa**

Argibideak: Maite Ruiz (948 240 674_652 321 124)

Kontaktua eta elkarrizketetarako telefonoa: Juan Mari Erice (Nafarroako GGKE Koordinakundeko presidentea) (649 964 251)

Mahaiaren argazkia erantsi da (ezk. – esk.): Txema Mauleón (Contigo Zurekin), Unai Hualde (Geroa Bai), Marta Álvarez (UPN), Juan Mari Erice (Presidente Coordinadora de ONGD de Navarra), Mariaje Huici (Técnica Coordinadora de ONGD de Navarra), Olga Chueca (PSN), Javier Arza (EH Bildu), José Suárez (PP).